

HAMABOSTEKARIA 136. zenbakia 98ko maiatzak 8

GOIERRITARRA



Arg.: M. Albisu



h e m e n
DISEINU ALTZARIAK

URDANETA KALEA, 56 • 20240 ORDIZIA

TFNOA./FAXA: 88 46 41

KALITATEA ETA ZERBITZUA ZURE ESKURA



FOTO SISTEMA ORDIZIA

Domingo Unanue,1
Tren geltokiaren aurrean
☎ 88 93 25



**ZATOZ GURE ERREBELATU MAKINA BERRIA PROBATZERA
ZURE ARGAZKIAK MONITOREZ KONTROLATUTA**



**AGFA PRESTIGE PAPER BERRIAREKIN KOLORE
DIZDIRATSUAGOAK ETA NATURALAGOAK**

**AUKERA EZAZU ZURE ARGAZKIEN FORMATOA ,
ORDU BETEAN 9x13TIK 13x18RA ERREBELA BAIDITZAKEZU**

**ORAIN FOTO SISTEMA
ORDIZIAN ORDUBETEAN
ERREBELATUTAKO KARRETE
BAKOITZAREKIN, ZURE
ARGAZKIEN INDIZE KOPIA
DOHAINIK JASOKO DUZU**



**GAINERA, ZURE KARRETEAN 19 ARGAZKI BAINO GEHIAGO
BADITUZU, 20x30 ANPLIAZIOA DOHAINIK IZANGO DUZU**

**FOTO SISTEMA ORDIZIAN, ERE, LABORATEGI ZERBITZUA ESKAINTZEN
DIZUGU ZURE DIAPOSITIBEN ERREBELATURAKO, DIAPOSITIBATIK
PAPERERA, ANPLIAZIOAK, ARGAZKITK ARGAZKIRA KOPIAK NEGATIBORIK
GABE, TXURI BELTZEKO KARRETEEN ERREBELATUA ETA PERCOLUX-INDEX
ETA GRAN LUJO-INDEX ERREBELATUAK**

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
Eduene Albizu, Aitor Arrue, Ga-
bino Murua, Pako Zubeldia, Ait-
ziber Murua, Iñaki Murua, Enrike
Enparantza eta Zorion Insausti.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Ona grafikak
(Artika - Nafarroa)

Tirada: 6.900 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Ertaroko azoka Ordizian,
maiatzaren 16an eta 17an**

3. urtez jarraian, Ertaroko azoka izango da maiatzaren 16an eta 17an, Ordizian. Nafarroako Elikagai artisau-Elkarteak, Ordiziako Udalarekin eta 'Ordizian'-ekin batera antolatu du azoka. Elikagaiak eta artisau-gintza erosteko aukera izango da bertan, larunbatean eta igandean, 11:00etatik 20:30era.

Horretaz gain, ikuskizun ezberdinak izango dira. Ertaroko desfileak egingo dituzte, orduero, danbor hotsez alaiturik. Lazkaomendiko Alarpe zalditegiko taldea ere ibiliko da Ordiziako kaleetan. Malabaristak, magoak, zapelatzak, ipuin kontalaria... ikusteko eta entzuteko aukera izango da. Ordizia bertako hainbat taldek ere hartuko du parte. Antzerki taldeak, kalean sketch ezberdinak egingo dute. La-

guntasuna Errondailakoek ere kantuak eskainiko dituzte. Eta Ordiziako Arku taldekoek, erakustaldiak egitearekin batera, haurrei arku-tiraketaren sekretuak erakutsiko dizkie, 12:00etatik 13:30era eta 17:30etik 19:30era.

Larunbat gauean, 10etan, ertaroko afaria izango da Plazan, 'Ordizian', merkatarien elkarteak antolaturik. Pottoka, Amonane, Sarri, Tahir eta Olano tabernetan daude txartelak salgai, 1.300 pezetan. Erreserbak 943-887340 telefonoan egin daitezke. Menua: oilo salda, oilasko erreka, garaiko fruta, basoko fruituen likorea eta kafea. Garaiko arropez jantzita joatea aholkatzen dute antolatzaileek. Ordiziako antzerki taldeak eta Laguntasuna Errondailak alaituko dute afaria.

BOTA BERTSOA



Joxe Munduate
(Goierriko bertso-eskolako
ikasle ohia)

35 orduko lan astea

Doinua: Ia jarri gaituzte

Hogeita hamabost orduz
bete nahi astea
langileak horrela
du bere ustea
baina ez da erreza
garbi ikustea
amets batek ekarri
lezake bestea
etxean gauden denok
lanean hastea.

Denok gaude gizarte
duin baten alde
edo bestela zuek
edonori galde
lanorduak jeistea
guztiontzat hobe
baina badut uste bat
ezin dena gorde
hobe jorjala jaso
lanik egin gabe.

GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

*Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



Apirilaren balkoitik Haritzen bihotzera

Beasainen, 1998ko, apirilaren 2an

Agurra:

"Ongi etorri eta egunon bildu zeraten danori".

Originala eh? Besterik bururatu ezean eta agurra puntuagarria ez denez, hainbestean.

Ofizioka: Ekaitz eta...? Ofizioka bina bertso, Ekaitz hasita.

"... etsipenean erori gabe egin dezagun aurrera, gau luzeenak egunsentian izaten du bukaera".

Bertsozaleen txalo hotzak hauteman ditzaket nire bihotz bero amestian. Badi-rudi entzulegoa erantzunaren zain dagoela, sentimin begiluzea oholtzaduren kolkora hurbilduz. Baina itxaropen herrenak, ezerezen izate lausotuan balantzatzan dira, bakardade lehorrean ugerlari. Isiltasuna mintzo da ene balizko ofizio lagunaren hitzetan. Isil da hutsa, bakargiro antzu ozpinduan. Bakardadearen itzalak estalita, zalan-tzak naroa arrastaka eresi garratzetan irrintzatutako kantan.

"Non hago? Zein larretan? bertsolagun maitakorra..."

Amets antzuen joanaren burutamen hotzean, izerdia dario isiltasunari aire etenean; hondarrezko ilusio desegin oro haizearen magal hutsopilean barreiatzen dir-elarik. Denbora urratzen doa haragi minberak astinduz eta oraindik bigarren bertsoa abesteke dudanez, mintzoaren dirundi zolia pulupantu dut bertsoaren ehundegian, ihardespeneren azken ametsa brodatu

nahian:

"... esperantzarik ez zintzilikakarmindurazko iltzean, gauzak bestela izango dira egun berria heltzean".

Esperantza, altzairuzko orratza da nire bihotzaren atean, eta ilusio erreia iheska doakit bizi-pozaren arrago-ko txingarretan. Oinazearen errautsek ongarrituta, labo-riaren intziri agonikoan darrait, giza mugaziaren boz-kario hiltegiaren.

Sorterriko haizabe nasaia, isiltasuna du ereskidetzti, birigarroen txirulinak kaiolako burdin trangetan ildokatzen baitira, leihorik gabeko begiradan. Herri zaharren ispilu hautsien mintzo etena, amets-aberri geroaren habian.

Euskaldunon bihotzek oster, herioaren arnasak histutako lorratzak bailiran, geroaren kezak gogaiturik min gorriaren iraupen gordinean darraite; elkarrenganako begirunean, justizian, elkartasunean, bakean eta elkarbizitzarekin batera, euskal birigarro guztien berehalako Euskal Herriratzeta aldarrikatuz taupada bakoitzean. Ametsak erein ditugu, ametsak biltzeko. Haatik, ametsondoaren desliluraren lainoetan, zerrailen gurin usainea, ernai ditut belarriak zure txilio gozatsuei iguriki; isiltasun guztiak ez baitira mutu.

Nekadura erraldoiaren muga hedoitsuetan, apirilaren balkoitik goizak eztituko dituen argi zirrintei begira nago. Hiltzen doa gaua, haize hegoaren hegaletan geroaren errainu maskurrei leku eginaz.

Besterik gabe, azken ahots kordetan igortzen di-

Besteek esana

❖ ❖ ❖ ❖ ❖ ❖ ❖ ❖

“

Lazkao euskararekin lotzea Maizpideren lorpena da. Euskaltegi honek Lazkaon euskal giroa bultzatzen ere zer esan handia izan du”.

INAZIO ESTENSORO

Lazkaoko alkatea

MAIZPIDE ALDIZKARIA

“

Euskal irakaskuntzazko prestijioa eman digu Maizpidek guztioi. Maizpideri esker, euskal kulturazko nortasunean aberatsagoak gara guztiok, Ataunen, Goierri, Euskal Herrian zein Munduan”.

JOXEMARTIN APALATEGI

Ataundar antropologoa

MAIZPIDE ALDIZKARIA

zut adiorik gabeko agurra.

*Neguak itotako arnasa
udaberriaren hauspoek
berrituko dutelakoan...*

*Ekaitzaren fereka Haritzaren
enborrean,
etenik gabeko besarkadan.*

Ekaitz Goikoetxea
Asurabarrena (Beasain)

Inaxitori lagunduz:

Inaxio Aierbe ataundar deportatuak aho-eztarriko minbizia zuela jakin genuen Eguberri jaietan.

Bere egoera ikusita, deportazioan bakarrik ezer egin ez zezakeela pentsatu eta gure herritik laguntza eskaintzea pentsatu genuen, laguntza gehienbat ekonomikoa beharko du, izan ere Venezuelen medikuntza pribatua da eta oso garestia.

Dagoeneko bi edo hiru ekitaldi desberdin antolatu dira dirua bildu asmoz, eta esan behar guztietan jaso ditugun erantzunak, Inaxitoren alde lan egiteko gogo-

ak indartu dizkigula.

Herrian antolatutako ekitaldi guztien berri herritarrei emateko ohitura dugu, baina martxoaren hamalauan antolatutakoen genuen 'barrikotean' herritarrek eta goierritar asko zegoela ikusirik, aldizkari honen bitartez guztioi gure eskerrik beroenak ematea pentsatu dugu.

Barrikotean 493.000 pezeta garbiak atera zirela esan nahi genizuke eta ez dela kopuru makala, jendearen parte hartzeak eta lortu den diru kopuruak, genituen aurriskupen guztiak apurtu ditu.

Baita, dagoeneko bi aurrezki kutxetan zabalduak ditugun kontu zenbakiak gogoratuz, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu ataundar eta goierritar guztioi.

Kutxa: 2101 0026 97
0010719755

Euskadiko Kutxa: 3035
0088 51 0880016980

Mila esker guztioi!

Inaxitoren lagunak

TXANDAKA

Habil mundu guztira!

Goierrri bailarako lantegi esanguratsu batzuk, publikoki euskerarekiko hartu duten jarrerak benetan poztu nau. Caf eta Irizarrek (agian beste batzuk ere izango dira) eguneroko lan iharduera euskeraz burutzeko asmotan eginiko plana, aspaldian hutsik zegoen esparru bat betetzen hasteko urratsa izango dela uste dut. Gainera, garrantzitsuena, oraindik eskoletan lan mundura begira 'D' ereduaz baztertzeko ari garenean lan munduan erderaz ari beharra dagoelako aitzakiaz (administrarritza alorreko ikasleen kasuan batik bat), zer da eta lantegiek aurrea hartu digute eta ez erreusenean, puntakoek baizik: munduko lantegirik puntakoekin milaka milioiko obrak hartzeko lehian dabiltzanek.

Ez dute euskeraren normalkuntza berehala lortuko. Urteak beharko dituzte baina, lortuko dute (zailagoa ez al da langileen ordezkarien eta enpresakoen arteko adostasuna lortzea, euskeraren alorrean dagoen behar larriaz denak jabetzea eta batera ekitea?) eta horren eragina izango da orain arteko emaitzarik aberatsena eskuratuko diguna. Eragin hori, bailarako beste lantegietan eta erakundeetan isladatu behar da.

Dendari, tabernari, e.a.ek ildo berean jarraitu asmo omen dute. Kate maila batek bestea dakar eta besteak bata, aitzakiak asmatzea da balio ez duena.

Animo bada eta segi dezagun irakaskuntzako maila gorenetan ere nola programak hala azalpenak euskeraz emateko gaitasuna lortu arte, orain bai, orain enpresan ere euskarra beharko dute gure ikasleek eta!

Zabal dezagun eguneroko bizitzako esparru guztietara ahalegin hau, euskeraren inguruan gabiltzanok beti ahulezian gabiltzalako diskurtso iada xaretua utzi eta konplexurik gabeko mezua hartuz, indartsuak ere alde dauzkagun honetan.

Iñaki Murua



Zer derizkiozu 35 orduko lan astearren eskareri?



Niko Aiestaran

**35 urte, arotza
zaldibitarra**

Ondo dago, lanik ez daukatenean lana eduki dezaten.

Antonio Villafranca

**31 urte, irakaslea
ordiziarra**

Ondo. Lan gutxi dago eta eta denok lan egin dezagun, dagoena banatzea litzateke onena.



Jon Goñi

**29 urte, ingenieria
lazkaotarra**

Zerbaitegatik ari dira eskatzen. Baina langabezia gutxitzeko ez da hain metodo garbia. Ez da nahikoa. Ez du hainbeste lanpostu sortuko.



Aukera ezazu zurea, guztiona...

Euskal Eskola Publikoa

**URDANETA-OIANGUREN
B. H. INSTITUTUA**

☎ 943 88 08 62 - 943 88 08 66

- Kalitatezko heziketa, euskalduna eta dohainik.
- Eskaintza osoa herrian bertan 3 eraikuntzetan banatuta (2 urtetik 18ra arte).
- batxileretan aukera zabala: bi modalitate, 26 ikasgai aukeratzeko: Humanitateak eta Giza Zientziak, Natur eta Osasun Zientziak.
- Goi mailako ikasketetarako bide egokiak.
- Ikasleak etorkizunean izan ditzaketen interes eta prestakuntza premiei erantzun egokia.

**Izen emateko epea:
Maiatzaren 4tik 18ra**

ZINEA

BEASAIN:

Maiatzak 21, 'Marius et Jeanette', 21:30ean, Beasaingo Usurbe Antzokian. Jatorrizko bertsoia euskarazko azpitu-luekin.

ORDIZIA:

'Esfera'. Ostirala 8: 22:15; igandea 10: 19:30 - 22:15; astelehena 11: 19:30.

'L.A. confidencial'. larunbata 9: 19:30 - 22:15.

'Gezi urdina'. Igandea 10: 16:45. Euskaraz.

'El hombre de la mascara de hierro'. Ostirala 15: 22:15; larunbata 16: 19:30, 22:15; igandea 17: 19:30 - 22:15; astelehena 18: 19:30.

'Rainbow'. Igandea 17: 16:45.

DANTZAK

BEASAIN:

Maiatzak 14, Maiatza Dantzan barruan, Mar Gomezen konpainiaren ikuskizuna, Usurbe Antzokian, 22:15ean.

HITZALDIAK

BEASAIN:

Maiatzak 18 'Ipar Irlandako Bake hitzarmena' gaiari buruzko hitzaldia, Mariano Ferrer kazetariaren eskutik, La Salle ikastetxean, 20:00etan. Antolatzailea: Elkargunerako eta elkarrizketarako Goierriko Plataforma.

Maiatzak 20, Anorexia eta bulimiari buruzko hitzaldia, Arantxa Lorenzo eta Ane Miren Urangaren eskutik, Udal Euskaltegiak antolatuta.

GABIRIA:

Maiatzak 19, "Janari neurri egokiak: dietak" gaiari buruzko hitzaldia, Arantxa Lorenzo eta Miren Uranga dietisten eskutik, kultur etxean, 16:00etan.

ORDIZIA:

Maiatzak 14, 'Elikadu-

ra neurri egokiak: dietak' gaiari buruzko hitzaldia, Arantxa Lorenzo eta Ane Miren Urangaren eskutik, AEK-k antolaturik, 15:00etan, Barrenan.

BERTSOAK

IDIAZABAL:

Maiatzak 8, Osinalde bertso txapelketaren kanporaketa, Axari elkartearen 20:30etan afaria eta ondoren bertso-saioa. Bertsolariak: Amaia Agirre, Mikel Aranburu, Alfonso Jimenez, Iñigo Olaetxea, Alaitz Sarasola eta Aitor Usandizaga.

ITSASONDO:

Maiatzak 16, Bertso-saioa, Errota pilotalekuan, 22:30ean. Bertsolariak: Egaña, Sarasua, Irazu, Euzkitze, Maia eta Gorostidi. Gai-jartzailea: Nikolas Zeberio.

LAZKAO:

Maiatzak 16, Trikibertso jaialdia, kiroldegian, 22:00etan. Trikitilariak: Koldo Iparragirre. Bertsolariak: Estitxu Arozena, Gregorio Larrañaga 'Mañukorta', Mikel Mendizabal, Iñaki Murua eta Anjel M. Peñagarikano.

IKUSENTZUNEZKOAK

GABIRIA:

Maiatzak 20, Jose Ramon Agirre 'Marron'-en eskutik, "K-2 Baltistan" ikusentzunezkoa, kultur etxean, 20:00etan.

ORDIZIA:

Maiatzak 21, Jose Ramon Agirre 'Marron'-en eskutik, "K-2 Baltistan" ikusentzunezkoa, Herri Antzokian, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Maiatzaren 21era arte, Iñaki Azanzaren argazki erakusketa, Aterpe tabernan.

Maiatzaren 8tik 17ra Jesus Zuluetaaren pintura erakuskea Usurbe Antzokiko erakusketa-aretoan.

IKASTAROA

ORDIZIA

Maiatzeko larunbateetan, 'Ahozko eta idatzizko komunikaizo teknikak' ikastaroa, Hitzarok antolatuta. Infomazio gehiago: 943-162366.

ZALBIDE SAGARDOTEGIA

Txitxarro eta sardinak
parrilan

© 943 65 21 76

ABALTZISKETA



KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

MENDI-IRTEERAK

Idiazabalgo mendizaleak:

Maiatzak 17: Mendi-zaleen festa.

Ordiziako mendizaleak:

Maiatzak 10, Gorbea.

Maiatzak 17, Lizarraga-Urba.

APIRILEAN SALDUENAK

LIBURUAK:

- 1- **El libro negro del Euskera**
Joan Mari Torrealdai (Tarttalo)
- 2- **Groenlandiako lezioa**
Bernardo Atxaga (Erein)
- 3- **Gure barria, 1975**
Xabier Mendiguren (Elkarlanean)
- 4- **Blancos y negros**
Arturo Campion (Tarttalo)
- 5- **Francia y la cuestion vasca**
Patrick Cassan (Txalaparta)

DISKOAK:

- 1- **Etzakit**
'Etzakit' (Elkar)
- 2- **Latzen**
'Ardi larruz' (Oihuka)
- 3- **La Polla**
'La polla en turecto' (Gor)
- 4- **Doctor Deseo**
'Hau cuentos aun por inventar' (Suicidas)
- 5- **Oskorri & The Pub ibiltaria** (Elkar)

Baga-Biga Kulturgaiak emandako zerrenda

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain). 943-88 05 87.

Maiatzak 9-10: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943-88 01 52.

Maiatzak 16-17: Atorrasagasti (Paz auzoa - Ordizia). 943-88 29 38.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Etxebizitza eta garajea salgai Seguran, kale-kalean. Deitu 943-18 74 88.

☐ Pisua alokatzen da Ordizian. 90 m²-koa. Garajea eta trastalekua ere bai. 943- 88 21 60. Gaez deitu.

☐ 60 m²-ko lokala alokatzen da, Lazkaoko Hirigoi pasealekuan. 943-882115.

☐ Comanche markako kanpin-gurdia salgai. 2 gelakoa eta abantze bikoitzekoa. Behin erabilia. 943-885873.

☐ Larre behiak salgai, 943-160616 edo 943-885007 telefonoetara deitu.

Bestelakoak:

☐ Frankfurt-Mainzeko (Alemania) familia batek Au-Pair bat nahiko luke aurtengo irailetik hurrengo urteko uztaile arte (Gabonetan etxera). Guraso gazteak eta 2 alaba, 8 eta 3 urtekoak. Deitu 943-187012 telefonora, gaueko 9etatik aurrera (Aloña).

Salerosketak:

☐ Gaztainondoeko bionboak salgai. 943-88 31 60. Gaez deitu.

☐ Behorrak salgai. 943-88 43 13.

☐ Moviline bat salgai, Motorola 130 markakoa. 943-882047. Kantsenjun-jagatik galdetu.



GESTORIA Biok

(BANDRES)
ASEGUROAK

Errenta aitorenak egiten dira

Goierri, 12 behea

ORDIZIA

☎ 943 88 44 00

☎ 943 88 12 58

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Maila eta arlo guztiak
- ✓ Unibertsitate-maila
- ✓ Banakako laguntza
- ✓ Talde txikiak

Informazioa: ☎ 943 16 01 20
Joan Iturralde, 5 BEASAIN

ETXERO

Autoen konponketa orokorra
Direkzio zuzenketa - Gorpil aldaketa
Olio aldaketak, engraseak - Diagnosiak

Hiribarren Atze, 11 ☎ 943 88 45 64
LAZKAO

ORDIZIAKO

Suquia

Kale Nagusia, 10

SUKALDEKO ALTZARIAK

Sukaldea berritu nahi duzu? Zatoz eta ikus ezazu gure erakusketa

Vegasa

 **xkey**
Taldekoo

☎ 943 88 23 00

ORDIZIA



Enrike Enparantza
Sasieta Mankomunitateko
Ingurugiro teknikaria

*“Legearen arabera,
merkatuan dauden
ontzi guztiak
berreskuratzea,
berrerabiltzea,
berzilatzea edo
balioztatzea bermatu
behar dira. 2001.
urteko ekainaren
30a baino lehen
gutxitze, balioztatze
eta berziklatze
helburuak bete egin
behar dira”*

Azkenaldi honetan komunikabideetan asko hitz egin da Ontzien eta Ontzien Hondakinen Legeari buruz. Aurten sartuko da indarrean. Legearen arabera, merkatuan dauden ontzi guztiak berreskuratzea, berrerabiltzea, berzilatzea edo balioztatzea bermatu behar dira. 2001. urteko ekainaren 30a baino lehen gutxitze, balioztatze eta berziklatze helburuak bete egin behar dira.

Honek esan nahi du, eskuratzen dugun ontzi bakoitzagatik aparteko kantidad bat ordaindu beharko dugula kontsumitzaileok. Aparteko kantidad hau azpiegiturak sortzeko erabiliko da, ontzia berrerabilia, berziklatua edo balioztatua izan dadin. Ontzi hauek ‘Puntu berdea’ deritzon logotipo berezia izango dute. Ontziak fabrikatzen dituztenek elkarte bat sortu dute, ‘Puntu berdea’ren bitartez lortutako dirua gestionatuz, legearen helburuak betetzeko. Elkarte honek dauden azpiegiturak aprobaxatuko ditu. Sasieta Mankomunitatearen ontzi bilketa ‘Puntu berdea’ren bitartez finantzatuko da.

Ontziak esaten dugunetan, merkantziak gordetzeko, babesteko, manipulatzeko, banatzeko eta aurkezteko erabiltzen diren produktu guztiei buruz ari gara. Hau da, beira, paper-kartoi, plastiko, metala, brik, e.a.

Ontzien Legen

Legearen helburu garrantzitsuenetakoa, 2001. urterako gutxienez ontzien % 25 berziklatua izatea da; baina material mota bakoitzaren % 15a, gutxienez. Hau da, ez du balio berziklatetaren batzbestekoa % 25ekoa izatea, adibidez, plastikoak ez badira berziklatzen.

Esperientzia pilotua

Lege berri honek Espainiar Estatuko materialeen biltegi, bilketa eta berziklatzea bultzatzea behartzen du ontziratzaile elkarteak. Legea betetzeko sistemarik onenetarikoa edukinontzien bilketa bereiztua dela erakusten du esperientziak; Sasieta Mankomunitateak aspalditik erabiltzen duen sistema. Nahiz eta gaur egun beira eta paper-kartoiaren bilketa bereiztua oso zabaldua egon, plastiko, metal eta brik ontzien bilketa ez da oso ezaguna Espainiar Estatuko leku gehienetan. Leku askotan hirugarren bilketa hau erabat berria izango da eta zerotik hasi beharko dutela esan daiteke. Ez da Sasieta Mankomunitatearen kasua, 1994ko ekainetik esperientzia pilotua martxan baitago Ordizia, Beasain, Olaberria eta Lazkaon.

Esperientzia honen hasierako helburua Kataluña-ko hiri batzuetan eta Iruñean bakarrik ezagutzen zen bilketa haren emaitzak aztertu eta baloratzea zen. Esperientzia hau Europako Parlamentuko 94/62/CE direktibaren helburuetan oinarritzen zen. Ontzien Lege berria direktiba honen transposizioa da. Direktibaren puntu garrantzitsuenetarikoa batek Europar Batasuna osatzen duten estatuek 5 urteko epean erabilitako ontzien itzulera eta berreskuratzea bermatzeko sistemak jartzera behartzen ditu. Sasieta Mankomunitatearen esparruan martxan jarri zen esperientziatik bilketa honen arazoak eta alde guztiak aztertuko dira. Datu hauek beste mankomunitate askotan erabiliko dira.

1994an Ordizia, Beasain, Olaberria eta Lazkao aukuratu ziren esperientzia berria martxan jartzeko. Sentsibilizazio maila handia zegoen herri hauetan. Ia 4 urteotan ‘hirugarren edukinontziak’ ondorio hauek izan ditu: 666 tonatik gora ontzi bildu dira, urtero % 10eko igoera izanez; urtean biztanleko 7,6 kilo pilatzen dira; % 20a berreskuratzea egin da; 202 edukinontzi jarri ziren; Legazpin dago ontziak bereizteko lantokia. Lau herrietako biztanleentzat papera eta beira bereiztea bezain normala da ontziak bereiztea.

Argitaratzen duen edukiaren laguntza

En la edición de esta publicación colabora:



*fundazio
fundación*

ERREZETA



Edurne Urbizu
Mandioa taberna
Zerain

GAZTA TARTA

Osagaiak: gaileta pakete bat, 200 gramo gurin edo mante-kila, 300 gramo gazta fresko, limoi baten zukua, pote txiki bat esne kondentsatu eta franbuesa mermelada.

Ontzi batean gailetak eta gurina nahastu. Oinarri beza-la jarri pasta hori.

Bestetik, gazta, esnea eta limoia nahastu eta pastaren gainean jarri.

Azkenik, guztiaren gaine-an franbuesa mermelada jarri eta hozkailuan utzi hozten.



Zorion Insausti

Oreka dietetika eta medikuntza naturala

Normalean, produktu hauek dietetikako den-detan saltzen dira. Bat-zuek komenigarrik dira eroslearentzat. Hau da, diabetesa duenarentzat hobea da fruktosa eros-tea eta ez azukre txuria. Arrazoia garbia da, fruktosak odolean glu-kosa edo azukrea gutxi igotzen du, azukre txu-riak, berriz, asko igo-tzen du.

Gaixo bat sendatzeko helburuarekin, produktu dietetiko asko daude: azukre beltza, gariaren germenak, garagardoaren legamia, eztiak, ogi inte-grala, fruktosa, jalea re-al, sojaren lezitina, hot-

AHOLKUA

Produktu dietetikoak

zean prentsaturako olioak, zereal naturalak, baratxuri olioak, bakaila-oaren gibelaren olioak, polena, itsasoko gatza, algak, fibra eta abar luze bat.

Beste produktu dietetiko batzuek ez daukate gaixo bat sendatzeko edo osasuna zaintzeko helburua, gustagarriak direlako baizik. Gaileta integralak adibidez. Noski, hauek (zapora eta elikagaietan) janari-dendetakoak baino ho-beak dira.

Bizitzaren beste atal oso garrantzizko bat-zuek zaintzearekin ba-tera (norbera bere bu-ruarekin eta ingurukoekin ondo sentitzea, edo-zein motako arazoren aurrean garaiz eta neurri egokian erreakziona-tzea...), elikadura zain-tzea ere beharrezkoa da.

Garbi dago, gaur egun elikadura zaintzen ez duenak, kasu askotan etorkizun batean osasun arazoak izango dituela.



VOLVO



TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

PSIKOLOGI KLINIKOA



José Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

Helduen, umeen, bikoteen eta
sexologi tratamenduak

AURRE ZITA

☎ **943 88 72 21**

Oriamendi, 3 - 2. ezk.
BEASAIN

GAZTE
ASTEARTEA

ARANTXA

E.R. MARTIN

IRENE

IÑAKI

JOS & BEL

MARISOL

MATXAIN

ILEPAINDEGIAK

Ilepaindegi hauetan maiatzetik ekainera, astearte guztietan 20 urte baino gutxiago baldin badituzu eta lan teknikoren bat egiten baduzu, oso prezio berezia edukiko duzu.



Etxegarate 2002. urterako bikoiztua

Horrela adierazi zien maiatzaren 4an, Antton Jaime Gipuzkoako Diputazioko Errepide eta Garraio diputatuak, Etxegarate gainean, Etxegarateren Bikoizketaren Aldeko Plataformako kideei. Urtearen bukaerarako hirugarren faseko obrak esleituta edo adjudikatuta egongo direla adierazi zuen. Obra horiek burutzeko guztira 18.000 milioiko fondoa dutela adierazi zuen Jaimek eta aurrikuspenak betetzen badira, 2002. urterako bikoizketa erabilgarria izatea espero du.

Honez gain, Etxegarateko errepide berrian ez dela bi-desaririk edo peajerik ordaindu beharrik izango esan zuen Antton Jaimek.

Plataforma baikor

Etxegarateren Bikoizketaren Aldeko Plataformako kideek (Goierri, Tolosa, Sakana eta Arabako Lautadako udalek osatua) baikortasunez jaso zuten berria. Hala ere, erne jarraituko dutela iragarri zuten. Antton Irizarrek, Idiazabalgo alkatea, adierazi zuenez, "guk lanean jarraituko dugu prozesu honen jarraipen bat egiteko eta datorren urteko aurrekontuak kontrolatzeko". Era berean, Antton Jaime diputatu berriaren jarrera (Jose Julian Irizarren ondorengoa) azpimarratu zuten, bere jarrera ezberdinak helburutzat zuten konponbidera eraman omen ditu eta. Azkenik, Gipuzkoako ordezkari politikoen aldetik jaso duten konpromezua oraindik Nafarroako partetik ez dutela jaso adierazi zuten plataformakoek. HBk zabalduakako prentsa ohar baten bidez zalantzak azaldu ditu, behin eta berriz epeak jarri eta ez direlako betetzen.

Proiektua

Etxegarate bikoizteko proiektuaren arabera, gaur egungo errepidea igotzeko erabiliko da, aldaketa gutxi batzuek eginda. Jaitsierarako errepide berria egingo da, gaur egungoaren paraleloa, 3,5 metroko zabalera bi karrilekoa. Bi tunel egingo dira, 180 eta 250 metrokoak. 280 metroko bidezubia eta zazpi pasoko egitura ere eraikiko dira. Aldaparik handienak % 6ko portzentaia izango du eta orduko 80 kilometroko abiadura aurrikusten da.

Postako langileak greban

Postako Plataforma Sindikal Unitarioak (CCOO, UGT, ELA, LAB eta ESK-CUIS sindikatuak) antolatuta, greba egin zuten apirilaren 29an postako langileek. Arrazoiak hauek dira: "prezio egokidun posta publikoa defendatzeko; gure lanpostuei eusteko; posta zerbitzua Euskal Herriko bazter guztietara iritsi dadin bermatzeko; gure esku-bideak bermatzeko; posta desgitearen aurka; eta, PP eta bere kide diren PNV eta CiUren Posta Legeare aurka, auzo eta herri txikia posta zerbitzurik gabe utz baititzaie".

Gestioa hobetzeko plana

Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailak, datorren maiatzaren 21ean, Ordizian, 'Gestioa hobetzeko plana' izeneko programa merkatariei ezagutarazteko informazio ihardunaldia egingo du. Programa hau, daramaten gestioa-

ren atal desberdinetan ikerketa egitea nahi duten merkatariei zuzendutako dohainiko zerbitzua da. Informazio gehiago lortzeko eta inskripzioak egiteko, deitu 943-160673 telefonora.

Irizar

Ormaiztegiko autobus kooperatiba enpresa barruan euskararen erabilera bultzatzeko plana hastekotan da. Gogoratu, Caf ere, plan honetan sartua dela.

Doinu zahar txapelketa

Igandean, maiatzak 10, Neskentzako VII. Doinu zahar txapelketa jokatu da Beasainen, Usurbe Antzokian, Aurtzaka dantza taldeak antolatutik, eta Euskal dantzarien biltzarren eta Beasaingo udalaren laguntzaz.

Txapelketa goizeko 10etan hasiko da eta bi talde ezberdinetan banatua izango da. Lehen taldean 7-11 urte bitarteko neskek parte hartuko dute eta bigarrenean 11-15 urte bitarte-



ELA-LAB

35 orduko lan astearren eta enplegu banaketaren aldeko ordubeteko lanuztea egin zen ELA eta LAB sindikatuak deituri apirilaren 23an. Erantzun zabala izan zuen Goierri. Arratsaldean, manifestazioa egin zuten, Beasaindik Ordiziara.

Zinea euskaraz Goierriin

Azkenaldi honetan Beasaingo eta Ordiziako udalen laguntzaz, zenbait filme euskaraz ikusteko aukera dago. Orain beste eskaintza bat etorkigu: Goieniz zine klubak, Goiherriko Euskal Eskolak eta Hitzaro Euskara Elkarateak antolatuta, eta Irizar kooperatibaren laguntzaz, 'Marius et Jeannette' filmearen jatorrizko bertsioa,



euskarazko azpitituluekin ikusteko aukera izango baitugu, maiatzaren 21ean, gaueko 9,30etan, Beasaingo Usurbe Antzokian. Iazko Donostiako Zinemanaldiaren Zabaltegi sailean aurkeztua izan zen filme frantziarra. 250 pezeta kostako da sarrera.

Robert Guédiguian da zuzendaria. Antzezleak, Ariane Ascaride eta Gérard Meylan, besteak beste. Marseillan kokatzen da istorioa. Marseillea, hamaika arraza, kultura eta istorioren topagunea da. Eta hiriko auzorik pobreenetakoa L'Estaque da. Han bizi dira Marius eta Jeannette, beren bizitzaren erdibidean dauden bi marseilar. Marius utzitako zementu-fabrika baten zaintzailea da eta han bizi da bakarik. Jeannettek nekez hazitzen ditu bere seme-alabak irabazten duen soldata xumearekin. Mediterraneo erako patio tipiko batera ematen duen oso etxebizitza txiki batean bizi dira. Marius eta Jeannetten arteko harremana ez da erraza izango, beren gizarte-egoeraren zailtasun propioez gain, bizitzak astindu ederrak eman baitizkie. Baina amodio hau ongi bukatuko da... horrela izan behar delako, munduari bere xarma itzultzea premiazkoa da. Ipuin bat da, proposamen bat: argia, haize freskoa eta zorientasunaren beharra.

3 sari jaso ditu 'Marius et Jeannette' filmeak: aktorea onenaren Cesar 98 saria; urteko Frantziako filmerik onenaren Louis-Deluc 97 saria; eta urteko Frantziako filmerik onenaren Lumiere 97 saria.

Bigarren urtea da Goienizek, Goiherriko Euskal Eskolak eta Hitzarok elkarrekin, zinea euskaraz ikusteko aukera eskaintzen dutela.

koek. Kanporaketa fasea jokatu eta hamarna neska sailkatuko dira bigarren fasea. Txapelketan dantzatu beharko dituzten piezak hauek dira: Punta-motz, Saltokako, Ehun dukat,

Horma txulo eta Txakolin. Epaimahaia Euskal dantzarien biltzarreko kideek osatua izango da eta hauek dantzen zuzentasuna, koordinazioa eta zailtasuna epaitu beharko dituzte.



Gerriko Ikerlan-sariketako liburuaren aurkezpena

VII. Gerriko Ikerlan-sariketako lan irabazleak biltzen dituen liburuak aurkeztu ziren apirilaren 24ean Lazkaon. Bata, Joxe Migel Azurmendik idatzitako 'Zegamako euskara'. Eta bestetik, Antton Idiakez, Pello J. Aranburu, Marian Bidegain eta Iñaki Rezolak idatzitako 'Joxe Felix Amundarain Muxika (Zegama, 1755-Mutiloa, 1825), Goierriko Euskal idazle ezezaguna'.

Joseba Jaka beka

Euskalgintza Elkarlanean fundazioak hamar milioi pezeta banatuko ditu Joseba Jaka II. Literatur Beken bitartez. Poesia, narrazioa, saiakera eta gazte literatura generoetako euskarazko idazlanak laguntzeko antolatu da beka hau, istripuz

hil zen Joseba Jaka zegamarraren omenez. Abenduaren 19ra arteko epea dute idazleek lanak aurkezteko.

Luis Aizpeolea

Gipuzkoako bola txapelketa Luis Aizpeola zeraindarrek irabazi du.

Ontzien bilketaren kanpaina berria

8. orrian Enrike Enparantzak, Sasieta Mankomunitateko teknikaria, azaldu duen legearekin 22 herritara zabalduko da plastikoen, metalen eta briken bilketa bereiztua. Gipuzkoako Diputazioaren laguntza izan du Sasietak, kanpaina berrian 3 m³-ko 210 edukinontzi zabaltzeko.

Kanpaina berri honetan edukinontzia itxuraz aldatuko dute. Beira eta paper-kartoia biltzeko edukinontzien itxurakoa izango da, hori-laranja kolorekoa. Paper edukinontziak adina ontzi edukinontzi jarriko dira. Bilketa bereiztuaren guneak edo 'isla ekologikoa'k izango dira herrietan, hiru edukinontziekin.

Maiatzaren 5ean hasi ziren Olaberrian eta Ordizian edukinontzi zaharrak bildu eta berriak jartzen. Maiatzaren bukaerarako Beasainen eta Lazkaon gauza bera egitea espero dute. Ekainean azkenik, Goierriko gainerako herrietara zabalduko dute edukinontzi berria. Sasieta Mankomunitateko arduradunek barkamenak eskatu nahi izan die herritarrei sor daitezkeen eragozpenengatik.

JOXE ANTONIO IRASTORTZA, ENIRI-ARALA MANKOMUNITATEKO GOARDA:

"Aralarren hobekuntza nabarmena da, hiru hilabateko atsedenaldia ematen hasi ginenetik"

Aralar mendia kontserbatzea helburu hartuta, 1991n martxan jarri zuen Enerio-Aralar Mankomunitateak, urtean hiru hilabetez Aralarri atsedena emateko plana. Gauzak honela, urtarrilaren 31tik maiatzaren 1era bitartean ganadu guztia behera jaisten dute. Joxe Antonio Irastortzarekin, Mankomunitateko goardarekin, izan gara egitasmo honen nondik norakoak jakin nahirik.

1988ko Aralar mendikatearen ordenazio plano oinarri hartu eta eztabaida handien ondoren, 1991n Enirio-Aralar Mankomunitateak Aralar mendia kontserbatzeko eta aldi berean artzantzari indarra emateko, egitasmoa martxan jarri zuen. Ordutik hona, urteko hiru hilabetetan, otsailetik apirilera, ganadurik ez da ibiltzen Aralarren. Erabakia hartu zenean, garai hartako Mankomunitateko udaletako ordezkariak lan handia egin omen zuten. Mankomunitatea herri hauek osatzen dute: Amezketa, Abalt-



zisketa, Orendain, Balarra, Ikaztegieta, Legorreta, Itsasondo, Arama, Altzaga, Gaintza, Ordizia, Beasain, Lazkao, Ataun eta Zaldibia.

Hasiera hartan, batez ere behorzaleek, errezeloz hartu zuten plana. Arauak bete ez eta, behorrek bahitu behar izan zituzten basozainek. Irastortzak adierazi digunez dena den, arazoa konpondu da eta ondorio onak dagoeneko nabarmenak direnez, azken lau zapa-bost urteetan ganaduzale guztiek ondo betetzen dituzte arauak.

18.000 ardi, 600 behor eta 600 behi ibiltzen dira Aralarreko larreetan. Kopurua urtetik urtera goraka doa ardi eta behietan; behorrek mantendu egiten dira. Aralarra eraman behar den ganaduko fitxa bat bete be-

har izaten da. Horrez gain, behi eta behor buru bakoitzeko 1.100 pezeta ordaindu behar izaten dira eta ardi buruko 110 pezeta.

Mankomunitatekoen helburua behor kopurua mantentzea da. "Neguan behorzaleentzat molestia da ganadua beheran edukitzea, gastu handiagoa izaten baitute. Baina hiru hilabetean beheran edukitzeak kalitatean hobetu egiten du aberea, aprobetxatu egiten baitute hobeto zaintzeko. Plan honen arriskua horretan ikusten genuen; ekonomiko-ki ezer gutxi aportatzen du behorrek eta epe honetan behera jaitsiz gero eta gastu gehiago izaten duenez, behor kopuruari eusteko aukera izango ote zen. Momentuz kopurua mantendu egiten da eta gustora gaude."

Emaitzak begibistan

Hiru hilabete atsedena emanda, onurak nabarmenak dira Joxe Antonio Irastortzaren esanetan. "Mendiaren erosioaren aldetik nabarmena da. Udaberria oso sakratua da eta belarra orduantxe altxatzen ari den ganadua bertan askatzea, akats handia da. Jais-teko epea luza daiteke, piskanaka joango gara agian epea lutzatzen, otsailera arte edo. Baina sakratua da apirilean ganadua beheran egotea. Plan honekin helburua lortu da, eta artzainak mendira igotzen direnean, janari hobea aurkitzen dute".

Aurrikusita ez zeukaten beste eragin onuragarri bat ere antzeman omen daiteke. "Hiru hilabete horietan ganadua mendian ez izatean, basoak bersortzen ari dira bere kabuz. Lehen ganadua basora sartzen zen elurra izaten zenean babes eta jateko bila, eta landare berriak jaten zituzten. Hori ere ebitatu da".

Bestetik, ganadua hiru hilabete hauetan beheran izateak, arraza genetikoki hobetzeko aprobetxatzen da.

Plana martxan jarri zenean ganadua mendian ez edukitzearekin mendia zi-

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN

GOIERRITARRA



943 88 96 12



AHOLKULARITZA

Hiribarren, 30

☎ 943 16 23 93

LAZKAO

♣ Aholkularitza juridikoa, fiskala, laborala, kontablea...

♣ Zure arazoentzat neurri-neurriko erantzunak ditugu!

kinduko zela omen zioten batzuek. "Oso erlatiboa da. Batetik larre motxa dago, txabola inguruetan. Bestetik, zikinagoa, lurra pobretu egin da, ahal dela ez dugu uzten erretzen, naturalki hori ari da sartzen. Bere lekuari dagokiona sortzen da".

Argi dauka Irastortzak, Aralarrek artzantzarik gabe, ez luke horrelako aurpegiarik izango. "Ez litzateke oinutsik ibiltzeko tentazioa ematen duen belar motxik egongo. Ezinbestekoa da ganadua Aralarren eta kopuruari eutsi egin behar diogu".

Gipuzkoan ez dago horrelako beste esperientziarik. Joxe Antonio Irastortzak beste mendikatetako profesionalak horretara animatu nahi ditu, "aurreneko eginbeharra, mendiaren kontserbazioa baita. Eta aldeko ondorioak kontrakoak baino gehiago dira".

Transhumantzia

Maiatzaren 1ean ireki ziren ofizialki Aralarko larreak

ganaduarentzat. Aurten lehenengo aldiz festa antolatuta du Enirio-Aralar Mankomunitateak igoera honen inguruan.

Transhumantzia deitzen zaio behe-lurretatik goi-lurretara larreko aziendak egiten duten migrazioari. Normalean lehenengo behiak eta behorrak igotzen dituzte. Ardiak beranduxeago. Ganaduzale gehien Zaldibian dago eta gero Ataun eta Amezketan. Mendi sarrera naturaletatik igotzen dira: Baiarrate, Errekabeltz, Olako Saroi, Larraitz eta Larrondotik.

Hobekuntza asko

Aralarri atsedena ematearekin batera, beste hainbat hobekuntza ere egin ditu Enirio-Aralar Mankomunitateak Aralarren. Guztira 47 artzain txabola daude. 12 berri egin dira eta 4 berritu. Txabola guztietan ura eta argia jarrita daude. Gaztategietan Sanidadeak eskatzen dituzten baldintzak betetzen hasi dira piskanaka.

Ganaduarentzako 14 as-



"Beharrezko sendabelarra"

"Bi hankako ganadu" ugari ibilzen da Aralarren. "Zorionez gero eta hobeto portatzen dira mendizaleak, sentsibilizatuagoa dago. Aralar eta antzeko mendiak gizarte honek beharrezko sendabelarrak dira. Bera, zaindu egin behar ko ditugu", adierazi du Joxe Antonio Irastortzak, Enirio-Aralar Mankomunitateko basozainak. Dena den, gomendio bate ere zabaldu nahi izan du lerro hauetatik. "Masifikazioa egoten da Larrunarri edo Txindokin. Baina Aralarrek beste bazter polit asko dituela ezagutu beharrekoak. Lizarrustiko aterpetxea eta aparkalekua, jendea banatzeagatik egin da".

Azkenik Lareo inguruan egitekoa asmoa dagoen turismo gunea, Aralarren ordenazio planaren aurka omen doa, eta "ekonomikoki bideragarria ez dela izango uste dut".

ka berri ere jarri dituzte, nahiko leku estrategiekotan. Beste dozenerdiren bat gehiago egitekoak dira.

Azpiegiturako hobekuntzez gain, artzaientzako gazta ikastaroa ere antolatuta du Mankomunitateak maiatzaren 18tik aurrera. "Oso beharrezkoa ikusten dugu gazta egiteko ziurtasuna izan dezatela, Aralar-ko gaztaren propaganda egin behar bada, ziurtasuna egon dadin produktu onare-

na egiten dela".

Azkenik, aurten beste berrikuntza bat jarriko dute praktikan. "Artzain askok eskatutakoa da: normalki kontrolatu egin nahi izaten dute arkumeen garaia. Horretarako, ahariak libratzeko epe zehatza jarri da, ekainaren 7a hain zuzen ere. Horrek ekarriko du, lehenengo arkumeak azaroaren 7an jaiotzea eta eguberrietarako prest egotea", dio Irastortzak.



EROSKI

KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 943 88 27 93

ORDIZIA

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierri 10 ☎ 88 61 14 ORDIZIA

Sagardotegia



aulia

Aulia-enea

☎ 943 80 60 66 LEGORRETA



GOIERRI LANBIDE ESKOLA

24 Posta Kutxa
☎ 943 88 00 62 / 66
Faxa: 88 83 51
ORDIZIA



98/99 IKASTURTERAKO GOIERRI LANBIDE ESKOLAREN ESKAINTZA

BATXILERGOAK

- TEKNOLOGIA BATXILERGOA
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN BATXILERGOA (ADMINISTRARITZA)

ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA

- MEKANIZATUA
- GALDARATEGI- SOLDAKETA
- ELEKTROMEKANIKO MANTENIMENDUA

IZEN EMATEKO EPEA:
MAIATZAREN 4tik 18ra

GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA

- NAZIOARTEKO MERKATARITZA
- MEKANIZATU PRODUKZIOA
- ERAIKUNTZA METALIKOAK
- INDUSTRIAL EKIPOEN MANTENIMENDUA
- ERREGULAZIO ETA KONTROL SISTEMA AUTOMATIKOAK

IZEN EMATEKO EPEA:
EKAINAREN 5etik 19ra

GUZTI HAU 'GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA' FUNDAZIOAREN BABESEAN,
BAILARAKO UDAL ETA ENPRESEN PARTAIDETZAREKIN.

GAINERA ZERBITZU OSAGARRI HAUEK IKASLEEN ESKURA IZANGO DIRA:
GOIKERRI (Zerbitzu Teknologikoa)
IKASLAN (Lan Praktiken Tailerrak)
LAN BOLTSA

HEZIKETA
TEKNIKOKO
ELKARTEA
HETEL

Ai Geala euskara taldeak berriro ekingo dio lanari

Beasaingo Ai Geala euskara taldeak berriz ere lanean hasteko erabakia hartu ondoren, bihar, larunbata, maiatzak 9, goizeko 11etan, emango dio hasiera ofiziala. Loinatz jaietarako eranskailu edo pegatinen lehiaketako saribanaketa aprobetxatuz, aurkezpen festatxoak izango da San Martin plazan.

Hainbat bilera egin ondoren, Ai Geala euskara taldea lozorrotik esnatu eta berriz ere abian jartzeko erabakia hartu zen. Beasainen euskara eta euskal kultura



Ai Gealak antolatuta Xabier Mendiguren Elizegi beasaindar idazleak bere azken bi liburuak ('Kanibalaren kaiolan' eta 'Gure barrio 1975') aurkeztu zituen apirilaren 21ean. Gurutze Sukia, Arkaitz Arruabarrena eta Joxe Migel Azurmendi beasaindarrak lagun izan zituen aurkezpenean.

bultzatzea ditu helburu Ai Gealak. Momentuz, ekintza xumeak eginez, taldea piztu egin nahi da, bide batez herriaren taldea ezagutzera emanez. Talde eragilea eratu da eta hasi da dagoeneko fruituak ematen.

Loinatz jaiei begira, eus-

kararen erabilera aldarrikatuko duen esaldiarekin eranskailuak kaleratuko ditu Ai Gealak. Horretarako lehiaketa egin da eta 94 esaldi bildu dira. Irabazleak hauek dira. Hurrengo alean emango ditugu irabazleen izenak. Dena den, bihar,

maiatzak 9, goizeko 11etan, San Martin plazan, izango da saribanaketa.

Saribanaketa hori aitzaki hartuta eta indarrez ekiteko, trikitilariak, bertsolariak eta hamaiketakoak izango dira ekitaldian, bazkideentzat eta oro har, euskararenganako interesa duten guztientzat.

Aurrera begira ere, beste hainbat ekitaldi ari da prestatzen Ai Geala. Garaian garaikoen berri ematen joango gara aldizkari honetatik bertatik.

Era berean, Ai Gealako kideek beasaindarrak animatu nahi dituzte euskararen aldeko talde honetan lan egiteko. Larunbatetan bildu ohi izaten dira, Kale Nagusiko 40an. 78 zenbakidun posta-kutxa ere hortxe dago harremaneta jartzeko.



orkli, s.coop.



Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio, segurtasun eta kontrol osagaiak

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

BEASAIN

Garapen bidean dauden herrietan lan egiteko dirulaguntzak



Beka eskuratzeko parte hartzeko beharrezkoa da Beasainen erroldatua egotea, 18-35 urte bitartean edukitzea eta jarduera egiten den lurraldeko hizkuntza ezagutzea, kasu honetan gaztelera.

Udaleko Gizarte-Ongizate batzordeak bultzaturik, emango dira garapen bidean dauden herrietan lan egiteko eta bertatik ikasteko dirulaguntzak eta bekak.

Batetik, garatze bidean ari diren herrietan egiten diren lankidetzak jardueretan gazte beasaingarrek parte har dezaten lagunduko da beka bidez. Elkartasun balorea indartu eta aldi berean gure herriari lurralde horien egoera gazteen bidez ezagutaraztea da helburua. Horretarako 850.000 pezeta izendatu dira. Lehenengo udala da Beasaingo, era honetako beka antolatzen duena. Nikaraguara eta Venezuelara joan dira beken jabe egiten direnak. Gutxienez 3 eta gehienez 6 pertsona bekatuko dira. Parte hartu beharrezko Nikaraguako bi proiektuak zehaztuta daude. Batetik, Esteliko 'Centenario' auzoan saneamendu estolderiarako, hezitzaile sozialak edo begiraleak behar dira; eta bestetik, Somoton, lur eta abere amankomunak proiektuan parte hartzeko

agronomoa edo albataria izan behar da. Venezuelako zehazteko dago oraindik.

Programa honetan parte hartzeko beharrezkoa da Beasainen erroldatua egotea, 18-35 urte bitartean edukitzea eta jarduera egiten den lurraldeko hizkuntza ezagutzea, kasu honetan gaztelera. Baldintza hauek gain, eskola-agiriak edo lanbide-kualifikazioak izatea, edota behar diren espezialitateetan ikasten ari direla ziurtatu beharko dute. Garapenarako lankidetzarekin zerikusia duten eskarmentuak eta ezagutzak izatea eta Gobernu Kanpoko Erakunderen bateko partaide izatea kontutan hartuko dira.

Eskaerak udaletxean aurkeztu beharko dira, NAREN fotokopia eta Curriculumarekin batera. Informazio gehiago Gizarte-Ongizate Sailean duzue (943-805238). Lehenbailehen pasa bertatik, eskaerak aurkezteko epea oso laburra baita.

Maiatza Dantzan

Martxan da dagoeneko Gipuzkoan dantzak duen ekitaldi nagusia, 15. Maiatza Dantzan. Hainbat ekintza eta ekitaldi izango dira hilabete zehar, eta azken urteetan gertatu den bezala saio horretako bat Beasainen ikusteko aukera izango da. Datorren ostegunean, maiatzak 14, 22:15etik aurrera, Mar Gomez dantza konpainia izango da Usurbe Antzokian, 'Levadura madre (a la madre le va la dura)' obrarekin.

Mar Gomez valentziarrak zuzentzen duen dantza talde honen ezaugarri nagusia umore eta ironia da, eskeneratuko duten lanaren izenburuak garbi uzten duen bezala. Lau ekitalditan banatzen den obra hau antzerki kutsu nabariko da, ari argumental argiarekin: euren sendarrak erahiltzen bukatzen duten hiru emakumeren pasadizoak. Eta oinarri musikala, 20. hamarkadako musika amerikarrez osatuko da. Sarrerei buruzko informazioa Usurbe bertan (943-883757).

Gobernu Kanpoko Erakundeak

Hautentzat ere izango da dirulaguntzarik. Gipuzkoan kokatutako Gobernu Kanpoko Erakundeek, eta batez ere Beasainekin lotura dutenek, lehentasuna izango dute. Proiektuaren helburua lagunduko diren biztanleen garapen gaitasuna areagotzea izan beharko da, onuradunek ekintza horren partaidea eginez.

Eskaerak udaletxean aurkeztu behar dira. Deialdi honetarako 6.000.000 pezetatik izendatu dira. Informazio gehiago Gizarte-Ongizate Sailean duzue.

Barnetegia Zerainen

Udal Euskaltegiak, urtero bezala, udako barnetegia antolatu du. Aurtengoan Zeraingo aterpetxean izango da uztailaren 1etik 15era, asteburuak barne. Barnetegia 5. maila gainditua dutenei zuzendurik doa. Helburua ez da izango mailaz igotzea, baizik eta hitz egitea eta euskararen erabilera sakontzea. 45-50

laguntzako lekua izango da Zerainen, eta ekintzei dagokienez, klaseetaz aparte Goierriko ondarea ezagutzeko hainbat irtenaldi ere prestatu dira. Matrikula 37.000 pezetakoa izango da, mantenu osoarekin, eta maiatzaren 22ra arte luzatuko da izena emateko epea. Interesatuak Udal Euskaltegiara jo (943-805254).

Koadrilarteko txapelketa

Koadrilarteko futbol txapelketa azken txanpan da. Datozen bi asteburuetan finalerdiak jokatu dira La Salla ikastetxean. Neurketak Auskalo-Zurrek eta Zumazuritze-Likabik izango dira, bi partidutara, eta koadrila eguneko final nagusiaren bila.

Odol ateraldia

Maiatzaren 18an, astearte, urteko zazpigarren odol ateraldia egingo du Beasaingo Odol-emileen delegazioak. Ohi den bezala, arratsaldean izango da Urbi-Etxeko lokalak.

Aitor Arrue

GABIRIA

Sukaldaritza ikastaroa lehenengo, kultur asten ondoren



Gorka Salaberria beasaindar sukaldariak emango du ikastaroa.

Maiatzaren 11, 13, 18 eta 20an sukaldaritza ikastaroa egin ahal izango dugu herrian Udalak antolatuta. Beasaingo Rubioren jatetxeko Gorka Salaberria sukaldaria izango da ikastaroa emango duena eta parte hartu nahi duten herritarrek maiatzaren 8a baino lehen eman behar dute izena udallexeko 943-880734 telefono zenbakira deituz.

Kultur astea

Maiatzaren 16tik 24ra bitartean izango da kultur astea. Udal Kultur Batzordeak eta

Osinalde Elkartek, Kutxa Fundazioaren laguntzaz antolatu dute. Azken orduko aldaketarik ez bada behintzat, jarraian duzuen hau izango da aurtengo kultur asteko egitaraua:

Maiatzak 16, larunbata: Gabiriako eskola-umeen antzerki saioa, Parrokiako antzokian, arratsaldeko 5etan.

Maiatzak 17, igandea: Goizez mendi-irteera Aizelekura. Irteera Gabiri-

tik 9,30etan eta 10,45ean Aztiritik. Arratsaldeko 5etan, Gabiriako gazteen musika emanaldia, Parrokiako antzokian.

Maiatzak 19, asteartea: 'Janari neurri egokiak: dietak' buruzko hitzaldia, Arantxa Lorenzo eta Miren Uranga dietisten eskutik, kultur etxean, arratsaldeko 4etan.

Maiatzak 20, asteazkena: Mendi filminak, Joxe Ramon Agirre 'Marron' en eskutik. Gaia: K-2 Baltistan. Kultur etxean, arratsaldeko 8etan.

Maiatzak 21, osteguna: Umeentzako ipuin kontaketa, Oihulari Clown Taldearen eskutik, Udal liburutegian, arratsaldeko 5etan.

Maiatzak 22, ostirala: Gabiriari buruzko diapositiba emanaldia, Jexux Artolaren eskutik, kultur etxean, arratsaldeko 8etan.

Maiatzak 23, larunbata: XXVII. Bertsolari Gazteen txapelketa, Osinalde elkartearen, 21:00etan afaria, eta ondoren bertso-saioa.

Maiatzak 24, igandea: Goruntz dantza taldearen saioa, Meza ondoren. Arratsaldeko 5etan, Goaz antzerki taldearen eskutik, 'Gure buruari, kuku!' antzezlanaren, Parrokiako antzokian, arratsaldeko 5etan.

Oharra: Aste osoan zehar Argazki lehiaketako argazkien erakusketa egongo da, kultur etxean. Lehiaketa honetako sarien banaketa maiatzaren 17an, igandea, arratsaldean burutuko den musika emanaldiaren amaieran egingo da.

Gabino Murua



Eskola-meek antzerkia prestatu dute kultur asterako.



**MUJKA
LIBURUDENDA**

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



☎ 943 88 55 00 ORDIZIA

LOINATZ

Taberna
Jatetxea
Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27



☎ 943 88 20 07

BEASAIN

**OSKARBI
OINETAKOAK**



Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.

Kickers



K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 ORDIZIA

ZEGAMA

Zegamarrek txirrindularitzan nagusi



Azken bolada honetan, zegamar txirrindulariek emaitza ezin hobeak lortu dituzte, inguruko herrietako txirrindu frogetan. Besteak beste eta jakin ahal izan ditugun froga hauek irabazi dituzte zegamarrek:

Apirilak 25: Aitor Perez: Afizionatu mailan, Lekeition erlojuaren aurkakoa irabazi ondoren sailkapen nagusian lehenengo gelditu zen. **Ruben Zabaleta:** Alebin mailan, Urnietako las-

terketan garaile izan zen, bere zazpigarren lasterketa irabaziz. **Aritz Irastorza:** Urnietan jokaturako lasterketan irabazle suertatu zen infantil mailan. Bigarren garaipena lortu du aurtan.

Apirilak 26: Ander Perez: Zarautzen, jubenil mailan, jokatu zen lasterketan erlojuaren aurkakoaren irabazlea izan zen.

Maiatzak 3: Ander Perez: Seguran izandako lasterketa irabazi zuen. Hone-

kin batera mendiko saria ere eskuratu zuen. **Ruben Zabaleta:** Andoainen jokaturako lasterketan, lehendabiziko postua eskuratu zuen berriro ere. Aipatu behar da, orain arte parte hartutako lasterketa guztiak irabazi dituela. **Aritz Irastorza:** Andoainen burutu zuen lasterketan bigarren izan zen.

Udal liburutegiaren zerbitzua

Udal liburutegi zerbitzua berriro ere 1998ko urtarrelean jarri zen martxan. Ordu-tegi berria, arratsaldeko 5etatik 7etarako da, astelehenetik ostiralera. Besteak beste, haur literatura, gai orokorrak, filosofia, psikologia, erlijioa, mitologia, giza zientziak, zientzia liburuak, arte, kirol, hizkuntza, historia, osasun liburuak daude bertan. Horiezaz gain, entziklopediak, atlasak, e.a. aurki daitezke, euskaraz nahiz gazteleraz. Zerbait aldizkari eta Egunkaria ere erregulariki jasotzen dira bertan.

Liburutegia gehien erabiltzen dutenak haur eta 20

bat urte bitarteko gazte eta gaztetxoak dira. Heldu eta jubilatuen presentzia nabarmen ahula da.

Mailegu aukeraz baliatze behar beharrezkoa da bertako bazkide izatea. Izatera honek 15 egun luzez bi liburu etxean edukitzeko eskubidea ematen du.

Bazkide ez direnek ere liburutegian bertan edozein liburu irakurri eta kontsultatzeko aukera dute, baina hori bai, ez dute bertatik libururik ateratzerik.

Aurtengo bazkide kuota, urte osokoa, 1.000 pezetakoa da eta ordainketa liburutegian, 5etatik 7etara edo udaletxean, 11etatik ordu batera egin daiteke egunero.

Kuotetatik jasotako dirua, urtero bezala, udal liburutegian behar diren liburuetan erabiliko da. Egundak Zegamako udal liburutegiak 109 bazkide ditu.

Edurne Albizu

ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN

IBAI-ONDO

**ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 880543 BEASAIN

GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

USURBE ZENTROA

- *Hernia diskala (Tratamendu ez kirurgikoa)*
- *Lumbagoa, ziatika*
- *Kirol lesioak*
- *Errehabilitazioa*

☎ 943 16 13 39
Andra Mari, 9-1.
BEASAIN

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

LAZKAO
Maizpidek 10 urte


Maizpideko irakasle eta langile taldea, Maizpide estreinatu zuten egunean, 1988ko apirilak 23.

Apirilaren 23an bete ziren 10 urte Maizpide Euskaltegia estreinatu zenetik, 10 urte euskara erakusten, herrian euskal kultura suspertuz eta helburu hauek bete nahian gogo betez lanean.

Euskararen aldeko lana ez da, ordea, azken hamarkada honetan laburbiltzen, ez noski. 1975eko uztaillean 1. Udako Euskal Ikastaroa antolatu zuten Beneditarrek. Bi urte geroago, berri, Goiherriko Euskal Eskola sortu zen. Hurrengo pausoa, udakoez gain, ikastaro trinkoak ematearena izan zen, eta azpiegiturak egokitzeko asmoarekin, berri, Gerriko sortu zen. Lan hauen guztien ondorioz eta jende askoren laguntzaz sortu zen 1988an Maizpide Euskaltegia. Historia luze eta sakona du euskararen irakaskuntzak Lazkaon eta inguruetan, eta horren era-

kuslea dira Goierrin zehar barreiatuta dauden euskaltegi, ikastola eta abarrak.

Azken 10 urte hauetan asko izan dira Maizpidetik pasa diren ikasleak, esaterako, lehenengo urtean 1.285. Urtero sendotzen joan da ikasleen kopurua eta hamar urte hauetan 18.000 baino gehiago izan dira Lazkaon euskara ikasi dutenak.



Eguraldiak gehiegi lagundu ez badu ere, giro ona izan da nagusi aurtengo San Prudentzio jai luzeetan. Aurtengo festak bukatu dira eta datorren urtekoak iristeko geroz eta gutxiago falta da.

Urtemuga gehienek izaten dute bere ospakizuna eta Maizpideren 10. urteurrenak ere merezi zuen beste horrenbeste, noski. Ospakizun hauek, maiatzaren 16an, larunbata, izango dira. Egun horretan bi ekitaldi nagusi izango dira, bata bazkaria eta bestea triki-bertso saioa.

Bazkaria Gerriko txokoa izango da, eguerdiko ordu bietan. Bertan parte hartu ahal izango dute hamar urte hauetan ikasle, irakasle, langile eta orohar Maizpiderekin zerikusia izan duten lagun askok.

Trikibertso jaialdia, berri, Joxe Miel Barandiaran pilotalekuan izango da gaueko 10etan. Bertan, Koldo Iparragirre eta bere taldeak jarriko dute trikiti doinuuen saltsa eta bertsolariak, berri, honako hauek izango dira: Mikel Mendizabal,

Iñaki Murua, Mañukorta, Estitxu Arozena eta Anjel Mari Peñagarikano.


Honez gain, 'Maizpide 10 urte' izenarekin aldizkari berezi bat atera dute. Bertan, Maizpide Euskaltegiarekin zerikusi zuzena edo zeharkakoa izan duten pertsona desberdinen iritziak agertzen dira euskaltegia eta bere inguruko arazoei buruz. Hala nola, Dionisio Amundarain, Pello Joxe Aranburu, Lurdes Amundarain eta Marian Bidegainek (Maizpideko zuzuendariak izanak denak), Inazio Estensoro, Andoni Sarriegi, Eukeni Lasa, Joxe Martin Apalategik eta beste hainbatek bere iritzia agertzen dute.

Aldizkari berezi honen 1.000 ale atera dituzte eta banaketa ohiko lekuetan egingo da, nahi duten guztiek eskuratu ahal izango dutelarik. Bestalde, 'Maizpide' aldizkariaren 6. alea ere zabaldu dute eta hau ere ohiko lekuetan eskuratu ahal izango duzue. Gogoratu, aldizkari hau Maizpideko ikasle eta irakasleek ateratzen dutela herritar guztien gozamenerako.

Gipuzkoako txapeldun

San Benito ikastolako infantil mutilak Gipuzkoako txapeldun izan dira atletismoan.

Urko Irastorza



X ENKEGI
ETXE-AROKINTZA

Diseinuak neurritan

Larunbat arratsalde irekita

Erakusketako ☎-faksa: 943 889113 - ☎ mugik.: 908 863591

Senpere Merkatalgunea, 38

**Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak**

BEASAIN



**Nafarroa
Etorbidea, 9**

☎ 943 88 94 82

BEASAIN

IDIAZABAL

Gaztak badu egun propioa



Gaztaren Egunean omendutako hiru artzainak. Arg.: Fotoetxe.

Eguraldia tristea, baina giro alaia izan zen aurreko igandean, maiatzak 3, ospatu zen Gaztaren Egunean. Udalak eta Gazta batzordeak antolatuta, urtero maiatzaren lehenengo igandean egingo den jai honek lehen urratsa eman du.

Goizeko hamarretan hasita gazta dohainik dastatzeko aukera izan zen eguartera osoan. Araba, Nafarroa eta Gipuzkoako artzainak egon ziren plaza buelta guztian. Gazta nola egiten den erakutsi zuten herriko bi artzainek, Domingo Goiburuk, era tradizionalen eta Jesus Aranburuk, era modernoan.

Futbitoan jarritako artalde txiki batek ere erakarri zuen jendearen jakinmina. Han aritu ziren ardi moztzen Benito Ezizola, betiko moduan, eta Jose Migel Atxa makina hartuta.

Artzainei omenaldia

Herriko hiru artzain zaharrenek ere parte hartu zuten Gaztaren Egunean. Idiazabalgo herriak omenaldia egin zien Anjel eta Pilar Imazi eta Bautista Oiarbideri. Hirurak herritik kanpora denbora askoan artzain ibilitakoak dira eta beraiek kontatutako pasarteak entzuteko aukera izan zen. "Artzantza lan lotua da (...) txabola ondoan egon beharra eta neguan arkumeak jaiotakoan haiei kaso egin beharra izaten zen", Bautista Oiarbidek hala laburtu zuen artzainaren lana. Pilar eta Anjel Imaz denbora askoan Bizkaiko Derio inguruan ibili ziren. "Idiazabalen zeuden larreak nekazaritzarako erabiltzen ziren eta ondorioz negua herritik kanpora pasatu beharra izaten zen", zioten.

Gaztaren lehenengo eguna arratsaldeko herri-kirol jaialdiarekin bukatu zen. Goenatxok hiru harri ezberdinekin jasoaldiak egin zituen. Aizkoran Nafarroako Larretxeak eta Nazabalek, Gipuzkoako Arrospide eta Olasagastiri 55 segunduko aldea atera zien hamabina 60 ontzako enbor ebakitzen.

HBren oharra

Kutxaren aurka izandako erasoari buruzko oharra kaleratu du Herri Batasunak. Oharrean Udalak gertakari hori aztertzeke egin zuen pleno bereziari kritika egin zaio. Komunikatuaren lehenengo puntuan HBk dio "Aitor Aseginolaza herritarra atxilotu, inkomunikatu eta torturatu egin dutela" eta horren aurrean udalak ez duela pleno berezirik deitu.

Kutxaren erreketak Euskal

Herriak bizi duen gatazka egoeraren barnean kokatzen du HBk eta elkartasuna adierazten die Kutxaren gainean bizi direnei jasadako kalteak direla eta. Komunikatuaren hirugarren puntuan HBk dio "PNV eta EAK pleno berezian izandako jarrera lotsagarria dela" eta herrian bakea lortzeko asmoz pausoak eman dituen alderdi bakarra HB izan dela azpimarratzen dute.

Ertzaintzak Idiazabalgo HBk egiten dituen ekintzekiko duen jarrera ere salatzen du oharra.


Maiatzeko loreak

Urtero bezala loreen hilabetean larunbatero ospakizun berezia izango da. Aurreko larunbatean hasi ziren Albitxuko Serotegi ermitan loreak ospatzen.

Bertsotxapelketa

Gaur, maiatzak 8, bertso txapelketa izango da Axari elkartean. Bertsolari gazteen Osinalde sariketaren barruko kanporaketa izango da hain zuzen ere. 6 bertsolari arituko dira: Amaia Agirre, Mikel Aranburu, Alfonso Jimenez, Iñigo Olaetxea, Alaitz Sarasola eta Aitor Usandizaga. Txapelketaren aurretik, afaria izango da, 8,30etan hasita. Txartelak Odei eta Xume tabernetan daude salgai.

Xabier Urteaga



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

Barandiaran
ZERAMIKAK

☎ 943 88 79 72
Senpere, 7
BEASAIN

ORDIZIA

Agustin Cortes berriro etxean



18 kartzelaz kartzela ibili ondoren, azkenean baldintzapeko askatasuna eman eta herriko kaleetan dabil berriro ere Agustin Cortes. 1980ko martxoaren 3an, beste batzuekin batera, atxilotu eta Carabanchel, Soria, Puerto de Santa Maria, Herrera de la Mancha, Albacete, Alcala, berriro Albacete eta azkenik Logroñoko itxiturak ezagutu ditu Agustinek. Legeak dioenaren arabera orain 3 urtez geroztik kanpoan behar zuen arren, aurreko apirilaren 25a arte itxaron behar izan zuen.

Herriak egin zion lehen harrera ziragarria izan bazen, are eta hunkigarriagoa izan zen maiatzaren 1ean eskeini zitzaion omenaldia. Ehundaka pertsonak bete zuten Enparantza Nagusia eta ekitaldiak erreskadan joan ziren. Herriak Agustini emandako lore sorta bidean geratutako 'Txintxo', 'Xepe' eta Juanrra Aranburu

ordiziarrei eskeini zien askatu berriak. Hainbat preso ohi ere taula gainean izan zen. Jakintza dantza taldekoek saio ikusgarria egin zuten, Cortes eta bere neskalagunaren begiradaren aurrean. Trikitilariak, txalapartajoleak eta bertsolariek ere euren saioa egin eta hainbat gaztek parodia antzekoa egin zuten. Bertan Agustinen kartzela aldiak eta honen askapena aurkeztu zituzten, egun gazteek jasaten dituzten jezarpen eta atxilotzeekin amaituz. Ondoren herriko hainbat taldek sariak eman eta manifestaldia burutu zen herriko kaleetan zehar. Eguna pilotalekuan egindako afariarekin amaitu zen.

Agustin Cortesen amak lasaitu ederra hartuko zuen semeak irten bezain pronto berria emango zionean. Dena den, hainbat ordiziar dago oraindik legez kanpoan egon beharko lukeena.

Hauek Eugenio Irastorza, Antxon Garcia del Molino, Arantxa Karrera eta Jokin Zubeldia dira. Berehalako baldintzapeko askatasuna eskatzeko asmoz plataforma sortua dago eta sinaduren bidez ez bada ere berau bete dadin eskatzea besterik ez da geratzen.

Bertso-saio oparoa

Nahikari Gabilondo zarauztarra eta Oihane Perea gasteiztarra izango dira epaileek hala erabakita maiatzaren 23an Gabirian jokatu den Osinalde sarira joango diren 6 bertsolaritik bi. Izan ere, Argi Berri Elkartearen jokatutako kanporaketan saio polita egin eta jokoan zeuden bi txartelak lortuko dituzte. Gainontzeko 4 bertsolariak asteburu honetan Idiazabal eta Brinkolan egingo diren saioetatik aterako dira. Esan Argi Berri Elkartearen bildutako 80 afalkide inguruk saio politaz gozatzeko aukera izan zutela. Epaileek Nahikari eta Oihaneren aldeko epaia eman bazuten ere, entzulegoak Ibai Esoain oriotarrari eman zion bere botoa eta ondorioz oroigarria jaso zuen.

Badatoz jai nagusiak

Santa Ana eguna geroz eta hurbilago dagoela eta, hasia da Festa batzordea osatzen. Herriko kirol eta kultur taldeekin egin da hasierako bi-

lera bat, eta baita herriko koadrilekin ere. Hauen ordezkariak osatuko dute aipatu batzordea eta laster hasiko dira Udalak jarritako aurrekontua kontutan hartuz jai egitaraua prestatzen. Momentuz esan danborradako karrozak egin nahi dituzten taldeek maiatzaren 31a baino lehen eraman beharko dituztela bozetoak, udaletxera edo Barrenara.

Kirolak

Aurrekoan adierazi genizuen bezala, aurreikusita zegoen saskibaloit taldekoak zail izango zutela eta azkenean bigarren mailari agur esan diote. Rugbykoak, aldiz, FER deritzon Kopan finalerdietan sartzeko aukera handiekin dabilta. Futbolekoak matematikoki maila mantzentzeko aukerekin badaude ere, mirariren baten beharra izango dute.

Diaporama

Joxe Ramon Agirre 'Marron'ek berak egindako diaporama eskainiko du Herri Antzokian maiatzaren 21ean. Beste herrietan honek izan duen arrakasta kontutan hartuz ziur antzokia txiki geratuko dela. Bestalde maiatzaren 14an, arratsaldeko 3retan elikadurari buruzko hitzaldia izango da Barrenan.

Aitor Calvillo

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia edergintza

Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 943 16 22 56 ORDIZIA

KUBIA
FAMILIAK EUROPA GUZTIAN ETA EEBeltan
INGALATERRAKO HOTEL ETA LANDETZEETAN
LANPOSTUAK KONTRATUAREKIN
Arrasate, 33 behe C DONOSTIA
Tel-Faxa: 943 43 15 48


"Ekogarbi" ilargia bezain garbi

943 16 02 23 - 970 95 00 88
Atxisain baserria IDIAZABAL

Garbiketa eta
mantentze
zerbitzuak

SERIOTASUNA,
KONFIDANTZA,
PROFESIONALITASUNA

SEGURA

Ardo partiketa eta herri afaria



Prontxio Ariztimuño, aguazila, arituko da ardoa partitzen.

Datorren ostiralean, maiatzak 15, baserritarrek ezezik kaletarrek ere ospatuko dute San Ixidro eguna. Badira, ordea, egun honen inguruan galdutako zenbait ohitura: egun bereko goizeko meza, ondorengo prozesioa eta arratsaldeko pelota partiduak besteak beste. Bertan behera geratu den beste bitxikeria bat, orain dela 2 urte arte Nekazaritza Ganbarak herriko baserritarren batzordeari San Ixidro egunez ordaintzen zion afariarena da. Batzorde horretan, besteak beste, Elortzako Julian, Omiñoko Daniel, Arrizabalako Tomax, Erbiolako Antonio, Arrabiolako Bonifazio, Malkorreko Martxeliño eta Euzkitzeko Joxe Mari ibili izan ziren.

Aurtengoari dagokionez, 19:30ean kapillan emango den San Ixidro eguneko mezaren ondoren, ardo partiketa eta herri afaria izango dira plazan.

II. Argazki lehiaketa

San Joan festetako egitaraurako, II. Argazki lehiaketa antolatu du Udaleko kultura batzordeak. Bertan edozein herritarrek parte har dezake.

Gaia, San Joan jaiei buruzkoa, koloretan eta neurri librean. Argazkietan atzean izenburua eta sobra itxi batean norberaren datuak jarrita, 4 lan aurkeztu ahal izango dira udaletxera, maiatzaren 16rako. Egitarauaren azalerako argazkiak 10.000 pezetako saria izango du. Barrukalderakoek, berriz, 1.000 pezetakoa.

Jauhartzeak

Maiatzaren 17an, 12:00etan parrokiaren lehenengo jauhartzea izango dute Garazi Aizpeoleak, Sandra Ariztimuñok, Josu Etxezarretak, Xabier Rodriguezek, Endika Manteconeak, Borja Gereñuk, Markel Fernandezek, Leire Araiztegik, Amaia Mujikak, Mikel Biainek, Ioritz Arizkorretak eta Aitor Arostegik.



Beheko Barrioko kirol probak

Txirrindulari proba: Ander Perez zegamarra izan zen lehena Jermaneneko helmugan. Lehenengo herritarren saria Alex Rekondok jaso zuen. **Toka txapelketa:** 48 herritarrek parte hartuta, Argintzeko Jexux Gereñu izan zen irabazlea 2 botalditan 6 txapa jota. 2. Ximon Garaialde, desentpatean Eneko Agirrezabal eta Migel Igarzabal gaintitu ondoren. Emakumezkoetan, Miren Imaz eta Karmentxu Ariztimuño berdinduta geratu ziren 3na txapa jota. Argazkietan: ezkerrean tokako irabazleak eta eskubian Alex Rekondo.

Jubilatuak

Txapelketak: maiatzaren 11n, 15:30ean, eskualdeko karta eta joku txapelketa izango da Beasainen. Partehartzaileak, modalitate bakoitzean herrian lehenak geratutakoak izango dira, gutxira 9. **Hitzaldia:** maiatzaren 14an, 18:00etan, herriko notarioaren hitzaldia izango da Kultur etxean, jaranspenaz (herentzia) eta testamentuaz. **Txangoa:** maiatzaren 22an Bizkaia aldera dira eskursioa egitekoak. Besteak beste, Guggenheim museora eta Gernikako junta etxera joango dira. Izen ematea Atsedenen.

Pelota

Maiatzaren 4an, Herri arteko pelota txapelketarako egin zen 2. zozketan, zizurkildarren kontra jokatzeko egokitu zitzaizen herritarrei. Final hamaseirenetako joaneko partidua Seguran jokatuko da, gaur maiatzak 8, Baratze Pelotalekuan, 22:00etan. Itzulerakoa hurrengo asteburuan izango da Zizurkilen.

rrengo asteburuan izango da Zizurkilen.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Errejonak:** Segura 4-4 Zumaiako. **Jubenilak:** Segura 3-2 Amaro. **Kadetak:** Aizkorri 3-1 Billabona. **Infantilak:** Zarautz 2-1 Aizkorri. **Asteburuan etxean:** **Infantilak:** Aizkorri-Koskas, zapatuan, 16:30ean.

Labur-labur

● **Herri Urrats:** Elorri K.E.ak antolatu duen autobusa 8:30ean irtengo da plazaatik.

● **San Joanak:** festa batzordeak 3. bilera egingo du maiatzaren 11n, 19:00etan udaletxean. Proposamen eta ideia berriak aurkezteko garaia orain dela diote ardura-dunek.

● **Futboleko errifak:** datorren urterako botak erosi ahal izateko errifak atera dituzte futbol taldekoek.

● **Kirol eskolarra:** maiatzaren 9an, Udaberriko txapelketaren barne, futboleko neska alebinek zegamarren kontra jokatuko dute eta mutil alebinek, berriz, ataundarren aurka.

● **Madurako lurjabe deialdia:** Gipuzkoako Foru Aldundiak, maiatzaren 21ean, 11:30ean elkartuko ditu udaletxean, Madurako saihebidetako kaltetuko dituen lurjabeak, lurrak hartu aurreko aktak egiteko. Bertan, besteak beste, derrigorrez desjabetutako lurrengatik ordainduko dutenaren berri emango dute.

● **Santa Barbarako meza** eta hamaiketakoa maiatzaren 24an izango dira aurtien.

Joseba Telleria

ITSASONDO

Kultur astea maiatzaren 12tik 16ra



Udalak kultur astea antolatu du maiatzaren 12tik 16ra bitartean. Ekitaldi ugari prestatu ditu. Udaletxean esaterako, Javier Fernandez ar-

gazkilariaren argazki erakusketa izango da, 'Naturaren atalak' izenekoak. Igan-deetan 12:00etatik 14:00etara egongo da zabalik; la-

runbatetan 17:00etatik 19:00etara eta astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara.

Egunez eguneko egitaraua dena den, jarraian duzue:

Maiatzak 12, asteartea: Ipuin kontaketa Arrate Leundaren eskutik, liburutegian, 18:00etan.

Maiatzak 13, asteazkena: Elhuyarreko Ane Miren Urangak zuzendutako 'Elkadura neurri egokienak: dietak' hitzaldia, udaletxean, 20:00etan.

Maiatzak 14, osteguna: Koke Lasaren eskutik, 'Manaslu: Izpirituaren bizile-

kua' ikusentzunezkoa, udaletxean, 20:00etan.

Maiatzak 15, ostirala: 20:00etan, herriko plazan, herriko haurren dantzaldia eta Laguntasuna Errondailaren emanaldia. Ondoren, 21:00etan, herri-afaria, Laguntasuna Errondailak alaiturik.

Maiatzak 16, larunbata: Bertso-saioa Errota pilotalekuan, 22:30etan. Bertsolariak: Andoni Egaña, Jon Sarasua, Jesus Mari Irazu, Xabier Euzkitze, Jon Maia eta Bixente Gorostidi. Nikolas Zeberio izango da gai-jartzailea.

ORMAIZTEGI

19 gaztek egin zuten Sendotza



Sendotzako sakramentua hartuzuten 19 gazteak.

Maiatzaren 1ean, San Jose Langilearen egunean, 19 gaztek hartu zuten Sendotzako sakramentua. Elizkizuna arratsaldeko 7,30etan ospatu zen Ander Deunaren elizan. Aurten Donostiako gotzainaren ordezkaria Ima-

nol Aldalegia jauna hurbildu zen gure herriko parrokiara eta bera izan zen elizkizun hura zuzendu zuena.

Azken urteetan Sendotzako sakramentua hartu izan duten gazte talderik handienetakoa osatuko zu-

ten aldarera hurbildu ziren 19 gazteek. 5 neska eta 14 mutil ez osaturiko ondorengo gazte taldeak hartu zuen. Berauetatik 16 herritarrek dira, beste hirurak, Ezkio-Itsaso eta Gabiriakoak: Iker Arratibel, Aitziber Iztueta, Mikel Ezizola, Haritz Maiz, Alaitz Juantorena, Jon Berasategi, Amaia Blanco, Ainara Mujika, Elxabete Olariaga, Asier Matellanes, Aitor Ariztimuño, Daniel Lerma, Joseba Izagurre, Ibai Sagastizabal, Aitor Abasolo, Arkaitz Etxezarreta, Iban Rodriguez, Ander Mendizabal eta Joseba Osinalde. Ostiralean Sendotzako sakramentua hartu eta pozik lagunartean eguna igaro zuen gazte talde honek jaso beza lerro hauetatik zorionik beroena.

Giltzak aurkitu dira

Orain egun batzuk Lierniko bidean giltza sorta bat aurkitu zela jakinarazi nahi da. Giltza hauek giltzari batetan loturik daude eta Barduliarak elkartean jasorik daude. Norbaitek argibide gehiago behar izanez gero, nahikoa duzue elkartera bertara zuzentzea.

Zergak ordaintzeko epea zabalik

1997ko 4. hiruhilabeteko ura, zaborra, estolderia eta azpiegiturei dagozkien ordainagiriak maiatzaren 31ra bitartean borondatezko epean ordain daitezke. Epe hori igaro ondoren, ordaindu gabe dauden ordainagiriak % 20aren gainkarguarekin kobratuko dira.

Aitziber Murua

PATXI EZKIAGA LEGORRETARRAK 1997ko KRITIKA SARIA JASO DU:

"Ez da poesia irakurtzen erakusten"

Patxi Ezkiaga legorretarak 1997ko Kritika saria jaso berria du 'Zauriaren salmoak' poesia liburuagatik. Liburu asko eta sari asko jasotakoa da. Ogibidez irakaslea da Donostiako La Sallen. Idaztea, hobbya baino askoz gehiago du. Mendia ere oso gustokoa du eta askotan inspirazio iturri du.

1984an idatzi zuen lehenengo liburua Patxi Ezkiagak. Harrezkero 20tik gora idatzi ditu eta baita sari ugari jaso ere. Bi Kritika sari jaso ditu, bi Jon Mirande, bi Lizardi, bi Irun sari... Irabazitako azkenekoa 1997ko Kritika saria izan da, 'Zauriaren salmoak' poemarioarekin. "Ez nuen inondik ere espero, aurreko urtean argitaratutako liburua da eta gainera argitaletxe ezezagun batekin. Duela hamar urte ere jaso nuen Kritika saria 'Keiko eta beste udazkenak' lanari esker. Baina orduan apenas izan zuen oihartzunik".

Sari hau jasotzeak euskal poesiari bultzada emateko eta bizirik dagoela erakusteko balio du Patxiaren esanetan. "Euskal poesia baztertu samarra izan da. Gutxi saltzen da, gutxi irakurtzen delako. Ez da erakusten poesia irakurtzen. Txiki-txikitik hiruzpalau lerroko bertso txikiak kantatzen dira. Irakurketa prozesuan aurrera egiten duten heinean, prosa irakurtzen den beza-



laxe, zergatik ez da poesia irakurtzen? Badago haurrentzako poesia ere. Baina horretarako kultura falta. Alper-alperrik da urte horietan poesia irakurri ez duen pertsona bati gero olerkizalea izateko eskatzea. Estatu osoan gertatzen da gauza bera".

7 urteko lana

Kritika oso ona jaso du 'Zauriaren salmoak' liburuak, batez ere Estatuan. Euskal Herrian oihartzun gutxiago izan du. Orain dela 7 urte hasi zen poemarioa idazten. "Garai hartan momentu kritikoak pasatzen ari nintzen nortasun aldetik. Isladatu egin nahi izan nuen, erreferentzia bezala Bibliako salmoak hartuz. Astero salmo bat hartzen nuen eta 7 urte hauetako nire bizitzako zenbait egoera islatzen saiatu nintzen. Kokagune geografikoak ere oso ezberdinak dira. Asko eta asko Izabako bordaren bakardadean idatzita daude, beste asko eta asko Parisen, Ingalaterran... Horrek aniztasuna ematen dio".

Genero ezberdinak

Genero ezberdinetako idazlea da, ordea, legorretarra, narratiba, saiakera eta poesia. Komikia ere izugarri gustatzen zaio. Genero nahasketak ere egin izan ditu. Hiruretan oso gustora sentitzen da. Urtean 60-70 bat liburu irakurtzen ditu, guztiak ere genero ezberdinetakoak. Saiakera lan bat ari da prestatzen datorren urterako. XIX. mendearen bukaera aldean eta XX. mendearen hasieran Ameriketara joandako emigranteen arteko bertsolarien zer nolako mundu ikuspegia zeukatenari buruzkoa.

Patxi Ezkiagaren printzipioaren arabera, idazle ba-

munikatu behar da, eta horretarako jan egin behar da. Ez dago idazle bakar bat ere, guztiz originala dena. Gure bizitza besteen islaketa izaten da askotan. Besteek egiten dutena islatzea lortzen badugu, ez da gutxi".

Legorretarren esanetan, ordea, irakurle gutxi dago Euskal Herrian. "Irakurtzen denerako gehiegi idazten da. Eskoletan irakurtzen da baina nolabait neska-mutilak horretara behartzen ditugulako. Baina ez dakit behar bezala irakasten diegun irakurketarako plazerrean barneratzen".

Egunero irakurri eta idazten du Patxi, ohiko irakasle lanez gain. Hobby bat baino askoz gehiago omen da berarentzat idaztea. "Egunero-egunero ordu pare bat hartzen ditut idazteko. Egunean zehar egiten ditudan gauzetatik eten eta barrurako bidaia horretan sartzen saiatzen naiz".

Lehenengo liburua idatzi zuenetik hona bere estiloa aldatuz joan da piskanaka. "Hasieran nire estiloa nahiko erretorikoa zen. Orain saiatzen naiz hitz gutxiagorekin moldatzen eta ahalik eta zuzena funtsera jotzen. Poesian metaforekin eta sinbolismoekin asko jokatzen dut, musikalitatearekin ere bai. Baina momentu honetan arazte prozesu batean nago. Zerbaitetan aberatsa banaiz, sinbolo eta metaforetan naiz".

"Egunero-egunero ordu pare bat hartzen ditut idazteko. Egunean zehar egiten ditudan gauzetatik eten eta barrurako bidaia horretan sartzen saiatzen naiz"

tek irakurle porrokatua izan behar du. "Bestela etengabe errepikatu egiten zara. Eta zerbait komunikatzeko, merezi duen zerbait ko-

ANTZIZAR ARRIKUTZ TRIATLOI TALDEAK ANTOLATURIK:

Beasaingo duatloia maiatzaren 17an

Datorren igandean, maiatzak 17, goizeko 10etan hasita, IV. Duatloi lasterketa izango da Beasainen, Antzizar Arrikutz Triatloi taldeak antolaturik. 10 kilometro korrika eta 40 kilometro txirrinduz burutu beharko dira. Euskadiko txapelketako zirkuituan sartuta dago Beasaingo proba. Izen ematea maiatzaren 14an bukatuko da.

Beasaingo Antzizar Arrikutz Triatloi taldeak antolaturik, Udalaren laguntzaz, laugarren edizioa izango du Beasaingo Duatloi probak. Antolatzaileek kutsu herrikoia eman nahi diote lasterketari. Gauzak honela, federatu gabeek ere parte hartzeko aukera izango dute, mila pezeta gehiago ordainduz gero. Inskripzioa, beraz, federatuentzat 2.500 pezetakoa izango da eta gainerakoena 3.500. Eguneko seguruagatik izango da garestiagoa federatu gabeentzat. Era berean, antolaketa lanetarako laguntzaileak ere eskertuko dituzte antolatzaileek. Honetarako guztirako, Beasaingo Antzizar



5 kilometro korrika, 40 txirrinduan eta bukatzeko beste 5 kilometro korrika egin behako dituzte Beasaingo duatloieko parte hartzaileek.

kiroldegian (943-887900) eman behar da izena, maiatzaren 14aren aurretik.

Egin beharreko lana

Duatloia hiru zatitan egin beharko da. Lehenengo, 5 kilometro korrika, Beasainen osatutako zirkuituari bitzuli emanez. Ondoren, Pergoletan txirrindua hartu, eta 40 kilometroko ibilbidea burutu beharko da. Ibilbidea honakoa izango da: Ordizia, Zaldibia, Larraitx, Abaltzisketa, Amezket, Alegi, Ikaztegieta, Legorreta, Itsasondo, Ordizia eta Beasain. Azkenik, amaitzeko, berriz ere 5 kilometro egin beharko dira korrika.

Sariak, emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat, berdinak izango dira. "Ki-

rol hau ez da matxista", dio Etor Mendia Triatloi taldeko kideak. 25.000, 15.000 eta 10.000 pezetana jasoko dituzte lehenengo hirurek. Lehenengo taldeak ere izango du saria.

Aurreko edizioetako partaidetza, 150 bat lagunekoa, gainditzea espero dute antolatzaileek. "Inoiz baino jende gehiago federatu da aurtentz kirol honetan, baita emakumeak ere. Igoera bat batekoa izan da. Ez dakigu zergatik gertatu den, agian iaz Gernikako Mundiala telebistak zuzenean eman zuelako... ez dakigu".

Bakarkako kirola

Bakarkako kirola da duatloia. Arautegi berezia dauka. Besteak beste, txirrindu

proban ezin da beste baten gurpilean joan, kaskoa beharrezkoa da, zulatua izanez gero norberak aldatu behar du, kanpoko laguntzarik ez da onartzen.

Beste kirolekin ezertara iritsi ez direnen kirola dela ere esaten da. Denetik omen dago Etor Mendiaren esanetan. "Jende asko txirrindularitzaletatik dator. Profesionalara iritsi ez eta lehiaketetan jarraitzearen. Duatloia kirola egiteko beste era bat da. Kirol honetatik bizimodurik aurrera ateratzerik ez dago, kirola egiteagatik bakarrik. Askotan gure poltsikotik ordaindu behar izaten ditugu gastuak".

Beste leku batzuetan, ordea, triatloietik bizi ahal liteke. "Frantzia esaterako, triatloian nabarmentzen den jendea erreztasunak ematen dizkie herriko udal eta komertzioek, kirola egin dezaten. Urtean sei hilabete lan egin eta beste sei hilabete langabezia kobratzen dute, gero berriz ere lehenengo lanera itzuliz. Bastele indartsurik ez dute izaten baina erosketak dohainik egiteko aukera izaten dute. Diru askorik ez dute irabaziko baina dirurik gastatu gabe kirola egiteko aukera izaten dute. Guk ia guztia poltsikotik jarri behar izaten dugu", azaldu digu Etorrek.

PUB

ASTI

Zaldizurreta kalea

943 88 45 06

BEASAIN

LAKET

Pepe Jeans

BOYVENTURE

Levi's DIESEL

BERGARA

Barrenkalea, 35

943 76 03 98

BEASAIN

Nafarroa Etorb., 1

943 88 48 65

ARRASATE

Otalora z/g

943 79 11 72

MAIZPIDE EUSKALTEGIAren

X. URTEURRENA

maiatzak 16, larunbata



BAZKARIA

Eguerdiko 2,30etan Goiherriko Euskal Eskolako eta Maizpideko ikasle, irakasle, langile... guztiontzat.

Eman izena maiatzaren 15a baino lehen (☎ 943 88 92 31/32)

TRIKIBERTSO JAIALDIA

Gaueko 10etan, Lazkaoko Kiroldegian

Trikitilariak: Koldo Iparragirre

Bertsolariak: Estitxu Arozena

Gregorio Larrañaga 'Mañukorta'

Mikel Mendizabal

Iñaki Murua

Anjel M. Peñagarikano

Parasol algodón

• Medidas: ø 2' mts

1.850

Grosfillex

Sillón Miami

• 4 posiciones

2.795

Cojín

posiciones

• Acolchado de 50 mm.



1.495

Sillón Monobloc
Miami

1.450

Cojín monobloc alto

• Acolchado de 35 mm.



790

Mesa Odessa


• Medidas:

ø 140 x 85 cm.

6.495

Cojín tumbona

• Acolchado de 70 mm.



2.690

Odessa
mahai multzoa

+

4 ahulki
monoblok
Miami

(kojinak ez dira barne)

12.295

Tumbona Miami
plegable

7.295

PRYCA

GOIERRI